



**I. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA**  
**Bizkaiko Foru Aldundia**

**Ahaldun Nagusia**

**Iragarkia, Bizkaiko Foru Aldundiko Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalarena, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2020ko otsailaren 18ko Erabakiaren onarpena argitara ematen duena. Erabaki horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Datu Pertsonalen Tratamendu-jardueren Erregistroa sortu, arautu, mantendu eta argitaratzen da, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 30. artikularekin bat.**

Iragarki honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2020ko otsailaren 18ko Erabakiaren xedapen-zatiaren laburpena argitaratzen da; bertan hau xedatzen da:

*Lehenengoa:* Onestea Bizkaiko Foru Aldundiko Tratamendu-jardueren Erregistroaren sortu, arautu eta argitaratzea (honen eranskinean jasotzen dira alderdi horiek), Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 30. artikularekin bat.

*Bigarrena:* Onestea Bizkaiko Foru Aldundiko Tratamendu-jardueren Erregistroa aldi-aldi modu transbertselean eguneratu eta berrikusi behar dela foru sail bakoitzeko tratamenduaren arduradunen (zuzendari nagusiak) eta Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetearen artean; eta, ondorioz, onesten da «Foru Sektore Publikoko Datu Babeserako eta Informazio Segurtasunerako Zuzendaritza Batzordea»ri jakinarazi behar zaizkiola erregistroa osatzen duten tratamenduetan egiten diren aldaketak, zuzenketak eta eguneratzeak.

*Hirugarrena:* Onestea Tratamendu-jardueren Erregistroa, datu pertsonalen tratamenduaren inbentarioa izateaz gainera, datu pertsonalen tratamenduaren jarduera bakoitzaren beharrezko informazio guztiaren 2. geruza dela, eta, era horretan, bermatzen dela ukitei zein tratamendu-arduradunei —hau da, zuzendari nagusiei— dagozkien informazioarako zein gardentasunerako eskubidea eta eginbeharra betetzen direla.

*Laugarrena:* Onestea Tratamendu-jardueren Erregistroa egin eta mantentzeko prozesuan beharrezkoak diren diren neurri teknikoak eta antolaketa arlokoak ezarriko dira datuen babesari buruzko araudia betetzen dela bermatzeko segurtasunari dagokionez eta, bereziki, Segurtasunaren Eskema Nazionalaren (SEN) arloko informazioaren segurtasunari dagokionez, hala gutxituko baitira pertsona fisikoen eskubideetarako eta askatasunetarako arriskuak datu pertsonalen tratamendua egiten den bitartean.

(...)

Iragarki honen bidez, orobat, jakinarazten da Bizkaiko Foru Aldundiko Datu Pertsonalen Tratamendu-jardueren Erregistroaren formatu elektronikoa eskuragarri egongo dela web bizkaia.eus orrian aurtengo lehen seihilekoan.

Bilbon, 2020ko martxoaren 4an.—Lege Aholkularitza, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Ataleko burua, Izaskun Furones Sierra